

**Fiskalizazio Txostena**

**Informe de Fiscalización**

**Berrizko Udalaren  
Fiskalizazio Mugatua**

**Fiscalización Limitada del  
Ayuntamiento de Berriz**

**2002-2003-2004**



Herri-Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas





## AURKIBIDEA/ÍNDICE

1. SARRERA .....	5
2. ONDORIOAK .....	6
2.1 INBERTSIOAK KONTRATATU ETA BESTERENTZEA.....	6
2.2 INBERTSIOEN FINANTZAKETA .....	7
2.2.1 Udala.....	7
2.2.2 Berriz hirigintza sozietatea, SA .....	8
2.3 KAPITAL ERAGIKETEN KONTULARITZAKO ERREGISTROA.....	10
2.3.1 Udala.....	11
2.3.2 Berriz hirigintza sozietatea, SA .....	12
3. BESTELAKO HUTSAK .....	14
3.1 INBERTSIOEN KONTRATAZIOA .....	14
3.1.1 Udala.....	14
3.1.2 Berriz hirigintza sozietatea, SA.....	15
3.2 AURREKONTUA ETA KONTABILITATEA .....	15
3.3 BESTELAKO ALDERDIAK: .....	16
4. AZALPEN ATALAK .....	17
4.1 UDALAREN ERAGIKETA KAPITAL ETA FINANTZAZKOEN AURREKONTU LIKIDAZIOA.....	17
4.2 BERRIZ HIRIGINTZA SOZIETATEA, SA-REN FINANTZA EGOERAK .	18
4.3 AURREKONTUAREN ALDAKETAK .....	19
4.4 AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK .....	20
4.5 KONTRATAZIOA .....	21
1. INTRODUCCIÓN .....	25
2. CONCLUSIONES .....	26
2.1 CONTRATACIÓN Y ENAJENACIÓN DE INVERSIONES.....	28
2.2 FINANCIACIÓN DE LAS INVERSIONES .....	28
2.2.1 Ayuntamiento.....	29
2.2.2 Berriz sociedad urbanística, S.A.....	29
2.3 REGISTRO CONTABLE DE LAS OPERACIONES DE CAPITAL.....	31
2.3.1 Ayuntamiento.....	31
2.3.2 Berriz sociedad urbanística, S.A.....	33



Herri - Kontuen  
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco  
de Cuentas Públicas

3. OTRAS DEFICIENCIAS .....	35
3.1 CONTRATACIÓN DE LAS INVERSIONES.....	35
3.1.1 Ayuntamiento.....	35
3.1.2 Berriz sociedad urbanística, S.A. ....	36
3.2 PRESUPUESTO Y CONTABILIDAD .....	36
3.3 OTROS ASPECTOS .....	37
4. APARTADOS EXPLICATIVOS.....	38
4.1 LIQUIDACIÓN PRESUPUESTARAI DE OPERACIONES DE CAPITAL Y FINANCIERAS DEL AYUNTAMIENTO .....	38
4.2 ESTADOS FINANCIEROS BERRIZ SOCIEDAD URBANÍSTICA, S.A. .	39
4.3 MODIFICACIONES PRESUPUESTARIAS .....	40
4.4 OPERACIONES EXTRAPRESUPUESTARIAS.....	41
4.5 CONTRATACIÓN .....	42
ALEGACIONES.....	45

Vitoria-Gasteizen, 2006ko abenduaren 26an  
Vitoria-Gasteiz, a 26 de diciembre de 2006



## 1. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak, otsailaren 5eko 1/1988 Legeak eta Epaitegiaren Osokoak oniritzitako Lanerako Programak agindutakoari jarraiki, Berrizko Udalaren eta “Berriz Hirigintza Sozietatea, SA” (aurrerantzean SUSA) Sozietate Publikoaren 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietako azterketa mugatua gauzatu du inbertsio errealean, horien finantzaketaren eta aurrekontuaren legezkontasunaren alorrean. <}0{>

SUSA 1998an sortu zen udal kapitalaren % 100arekin eta bere xede sozialak besarkatzen du, bai Berrizko Udala Arau Subsidiarioen hirigintzako kudeaketa lehia libreko erregimenean, bai eraikuntza, hirigintza eta azpiegitura lanak egitea, zaharberritzeko jarduerak eta lurzorua sustatzekoak, besteak beste. Aztertutako aldian, Sozietateak egindako lan guztiak Udalak agindutakoak izan dira.

Lanaren helburua Aurrekontua mamitu, aldatu eta exekutatzean ezargarria den arautegia bete den egiaztatzea da, inbertsio errealean, zorpetzearen eta finantza eragiketen alorrean ez ezik, kapitalezko diru laguntzak eman eta eskuratzean ere bai. Berebat, kapitalezko gastu eta sarrera hauek ezargarri diren kontularitzako printzipioekin bat datozen aztertuko dugu.



## 2. ONDORIOAK

### 2.1 INBERTSIOAK KONTRATATU ETA BESTERENTZEA

2002-2004 aldian Udalak eta SUSAk egindako inbertsioen kontratazioa eta besterentzea aztertutik, honako alderdi hauek azpimarratu dira.

1. SUSAk zuzenean esleitu ditu aztertutako aldian exekutaturiko inbertsioen oinarrizko azterlanak, exekuzio proiektuak, obra zuzendaritzak eta segurtasun eta osasuneko azterketa oinarrizkoak mamitzeko laguntza tekniko guztiak, administrazioko kontratazioaren printzipio nagusiei meneratzen zaizkienak, 1,3 milioi euroko zenbatekoarekin, publizitate eta lehia printzipioak urratuz. (8,9,10,11,12,13,14,15,16,17 eta 18 espedienteak).

Jarduera hauetan azpimarratzekoa da:

- Oinarrizko azterlanak eta obra exekutatu eta zuzentzeko proiektuak guztira 984.000 euroko zenbatekoarekin kontratatu dira sozietate batekin; ordea, sozietate horretako administratzaileetako batek zerbitzu lotura bat du Udalarekin berarekin eta horren indarrez, egitekoak betetzen ditu Udala bera eta sozietatea aholkatuz, bai hirigintzako auzietan, bai Udalaren eta sozietateren hirigintzako inbertsio eta jarduerekin lotutako hainbat kontraturen lehiaketetan; gainera, kontratazio mahaiko kide da. Nahiz kontratuak aholkularitza egitekoaz gainera ordainsariak aurreikusten dituen, bateraezintasun funtzionala dago udalaren eta sozietatearen inbertsio eta hirigintzako jarduerekin lotutako kontratuen esleipenean gauzatutako aholkularitza egitekoen eta bi erakundeen proiektu eta obra zuzendaritzekin lotutako laguntza tekniko guztien esleipenaren artean.

Bestetik, Udalak hirigintzako aholkularitza kontratatzea 1988ko otsailaren 25eko Osokoak onetsi zuen, urtero luzatu delarik txosten hau jaulki den unera arte. 2004ko urtean zehar, kontzeptu honen izenean erregistratutako obligazioek 36.000 euro egin dituzte. Kontratuaren metatutako iraupenak ez dauka tokirik kontratu mota honi dagokionez APKLTBn (198.1 artikulua) finkatuta dauden exekuzio epeetarik inogotan; honenbestez, aztertutako aldian horren kontratazioa publizitate eta lehia printzipioak urratuta gauzatu da (7. espedientea).

Txosten hau idatzi dugun datan, hirigintzako aholkularitza emateko zerbitzu kontratua alkatetzaren dekretu bitartez ebatzi da eta doakionari 2006ko abenduaren 9an jakinarazi zaio (ikus Alegazioak).

- Segurtasun eta osasuneko exekuzio materialaren zuzendaritza eta oinarrizko azterlanei dagokienez, esleipen hartzaileetako bat -156.000 euroko zenbatekoarekin- udal funtzionarioa dela egiaztatu dugu; honek bateraezintasuna eragiten du Herri Administrazioen zerbitzura diharduen langileriaren Bateraezintasunei buruzko 53/84 Legearen 11.1 artikuluan ezarritakoaren arabera.

2. Udalak 128.000 euroan esleitutako obra kontratu batean, azken likidazioa esleipen zenbatekoa baino % 18,75 altuagoa da, kontratazio atalak dagokion aldaketa onetsi ez duela, APKLTBren 146. artikulua urratuz (1. espedientea).



3. SUSAren Administrazio Kontseiluak, 2002ko urriaren 3koak, Berriz, SA sozietatearen akzio erosketa onetsi zuen, 1,7 milioi euroko zenbatekoarekin. Espedientean ez dago erasota ordaindutako zenbatekoaren arrazoizkotasuna euskarrituko duen inongo tasaziorik.
4. 2003ko ekitaldian Udalak SUSAri 500.000 euroko zenbatekoa eman zion Berriz, SA sozietatea (Markesa Jauregiaren jabea) erosteko aurrerakin kontzeptuan. Udalean ez da ageri ez hori emateko, ez itzultzeko inongo erabakirik.
5. Txosten hau idatzi dugun datan ziurgabetasun-egoera dago, izan ere, epaia jaso zain baitago Administrazioarekiko Auzietarako Jauregiaren aurrean lehiaketan esku hartu zuen lizitatzailer batek jarritako errekurtsioa, SUSAk 2003ko abenduaren 11n 3,2 milioi zenbatekoarekin SAPUR-4 lursaila besterentzeko egindako esleipena aurkatzen duena.

## 2.2 INBERTSIOEN FINANTZAKETA

### 2.2.1 UDALA

Hona hemen aztergai izan dugun aldian gauzatu diren kapitalezko eragiketak eta euren helburuetara aplikatutako finantzaketa iturrien zenbatekoa:

KAPITALEZKO ERAGIKETAK	Mila euro		
EKITALDIA	2002	2003	2004
Inbertsio errealak .....	1.372	1.267	747
Kapitalezko transferentziak .....	1.111	1.061	30
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.483</b>	<b>2.328</b>	<b>777</b>

FINANTZAKETA	Mila euro		
EKITALDIA	2002	2003	2004
- Inbertsioen besterentzea .....	-	15	182
Transf. eta kapital diru lag. ....	20	296	31
SUSAri trans., kontuetaratzeko dagoena .....	-	(256)	-
IZARTU sarrerak, aurrekontuari ezarri gabea.....	72	46	-
Aurrezki garbia .....	864	579	564
Zorpetzea .....	801	1.512	-
Erabili gabeko zorpetzea .....	-	(400)	-
Ekitaldi hasieran DGrekin finantzatutako gainerakoa..	726	536	-
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.483</b>	<b>2.328</b>	<b>777</b>



**Ondorioak:** Hara nola finantzatu diren SUSari emandako kapitalezko transferentziak eta egiazko inbertsioak:

- 2002ko ekitaldian % 64an berezko baliabideekin eta % 36an kanpoko baliabideekin (% 32 zorpetzea eta % 4 kapitalezko transferentzia eta diru-laguntzak).
- 2003ko ekitaldian % 48an berezko baliabideekin eta % 52an kanpoko baliabideekin (% 48 zorpetzea eta % 4 kapitalezko transferentzia eta diru-laguntzak).
- 2004ko ekitaldian % 96an berezko baliabideekin eta % 4an kanpoko baliabideekin.

## 2.2.2 BERRIZ HIRIGINTZA SOZIETATEA, SA

SUSAk aztertutako aldiaren zehar jardura garatzeko eskuratutako finantzaketa Berrizko Udalak eta beste Administrazio Publikoek emandako laguntza eta transferentzietatik, kanpoko zorpetzetik eta sozietateak berak aldi horretan zehar sortu dituen baliabideetatik dator.

Ondotik inbertsioen exekuzioa eta finantzaketa iturriak aztertuko ditugu, era honetara bereizirik:

### Udalak agindutako lanak

Ondoko taulan erakutsiko dugu horien egiazko exekuzioaren zenbatekoa:

INBERTSIOAK	Mila euro				
	2001	2002	2003	2004	GUZTIRA
Udal zerbitzuetarako pabiloia .....	386	10	7	-	403
Olakueta Plazaren urbanizazioa .....	375	3	11	-	389
Urtiaga Plazaren urbanizazioa .....	-	317	17	-	334
Errotatxo auzoaren urbanizazioa .....	-	570	-	-	570
Iturriza Kalearen urbanizazioa .....	-	-	243	5	248
Kultur Etxea zaharberritzea .....	-	-	61	422	483
Pilotalekua zaharberritzea .....	-	487	12	-	499
Markesaren Jauregia sendotzea.....	-	-	148	399	547
Markesaren Jauregia zaharberritzea .....	-	-	-	154	154
<b>GUZTIRA</b>	<b>761</b>	<b>1.387</b>	<b>499</b>	<b>980</b>	<b>3.627</b>





Hona hemen konprometitutako finantzaketa iturrien zenbatekoa aurreko taularen exekuzioaren arabera:

FINANTZAKETA ITURRIAK	Mila euro				
	2001	2002	2003	2004	GUZTIRA
EJ-IZARTU Programa.....	167	551	139	211	1.068
Eusko Jaurjaritza-Zaharber. ARI ondarea.....	-	232	100	-	332
EJ-Irigarritasuna .....	-	-	-	24	24
BFA-Ezusteak (Jauregia sendotzea) .....	-	-	103	153	256
Berrizko Udala.....	376	1.078	475	-	1.929
<b>GUZTIRA</b>	<b>543</b>	<b>1.861</b>	<b>817</b>	<b>388</b>	<b>3.609</b>

2004ko abenduaren 31n SUSari agindutako inbertsioetatik exekutaturiko guztia % 53an udalak finantzatu du eta % 47an beste Administrazio Publiko batzuek.

### Markesaren Jauregia erostea

Sozietatearen Administrazio Kontseiluak, 2002ko urriaren 3koak, Berriz, SA (Markesaren Jauregia izeneko eraikinaren eta alboko lursailen jabe) sozietatearen akzio erosketa onetsi zuen. Eragiketa honen kostua eta erabilitako finantza iturriak honako hauek izan dira:

	Mila euro	
	KOSTUA	FINANTZAKETA
Berriz, SAren erosketa.....	1.665	
Zorpetzea .....	-	1.075
Udalak emandako aurrerakina .....	-	500
Bereak diren baliabideak.....	-	90

2004ko ekitaldian, SUSaren Batzar Nagusiak Berriz, SA sozietatearen likidazioa onetsi zuen eta 2004ko abenduaren 9ko Udalaren Udalbatzak SUSari Markesaren Jauregia salerosteko erabakia hartu zuen, 1,9 milioi euroko zenbatekoarekin. Prezio honek barne hartzen du ibilgetuaren erosketa balioa -1,7 milioi eurokoa-, gehi Berriz, SA Sozietatea desegin arte eraikinean gauzatutako sendotze lanak, 285.000 mila euroko zenbatekoarekin (Udalak agindutako lana eta ondorioz, % 100arekin finantzatutakoa). Salerosketa erabakia 2005eko ekitaldian eskrituratu zen eta ordainketak egiteko neurria ezarri zen, erosketa hori finantzatu zuen maileguaren amortizazioaren parekoa, alegia, behin emandako aurrerakina kendu ondoren, 500.000 euroko zenbatekoarekin, Berriz, SA sozietatea erosteko.

Jauregia salerosteko erabakia hartu ondoren, SUSAk zaharberritze lanak gauzatu ditu eraikinean 2005eko ekitaldian, 1,4 milioi euroko zenbatekoarekin.



## SAPUR-4 salerostea

2000ko maiatzaren 4ko udalbatzak hasiera batean Berrizko Arau Subsidiarioen Aldaketa onetsi zuen SAPUR-4 sektorea sortzeko, lurzoru ez eraikigarria erretserban lurzoru eraikigarrira birkalifikatzean zetzana; jendaurreko informaziora meneratu ondoren, behin-behingo, 2000ko maiatzaren 30ean onetsi zuen. BFAREN Hirigintzako Foru Sailaren 2002ko urtarrilaren 14ko Foru Aginduz, behin-betiko onetsi zen Berrizko udalerrriaren Planeamenduko Arau Subsidiarioen Aldaketa. Berrizko Udalaren 2002ko azaroaren 7ko udalbatzak SAPUR-4 lursaila 180.000 euroko zenbatekoarekin zuzenean besterentzeko erabakia hartu zuen; horren helburua sustapen publikoko etxebizitzak eraikitzea da, eta sarrera hori udalak 2004ko ekitaldian aitortu du.

Sozietatearen Administrazioaren Kontseiluak 2003ko abenduaren 11n salmenta lehiaketa bitartez esleitu zuen, 3,2 milioi euroko zenbatekoarekin, gehi dagokion BEZ. Finkatutako ordainketa moldearen arabera, obra amaitutakoan 5 etxebizitza emango dira, 489.000 euroko zenbatekoa egingo dutenak, eta gainerakoa, eskudirutan.

Eragiketa honen mozkin eta horren gauzatzea lana egin dugun datan, ondoko taulan dago jaso:

<u>SALMENTAREN EMAITZA</u>	<u>Mila euro</u>
SAPUR-4 orubea saltzeko lehiaketa esl.....	3.189
Udalari orubea erostearen kostua .....	(180)
Eragiketaren mozkin .....	3.009

<u>EMAITZA EZARTZEA</u>	<u>Mila euro</u>
Espezietan esleipenaren zenbatekoa .....	489
Markesaren Jauregia zaharberritzea-05.....	1.394
BFAREN diru laguntza atxikia .....	(279)
Kulur Etxea zabaltzea-2005 .....	1.022
EJ-IZARTU diru laguntza atxikia .....	(421)

Lan hau mamitu dugun datan eta bi taulak alderatuz gero, ikus daiteke SUSAREN baliabide erabilgarriak, eragiketa honetatik eskuratutakoa, 804.000 eurokoak izan direla.

## 2.3 KAPITAL ERAGIKETEN KONTULARITZAKO ERREGISTROA

Hona hemen ezargarriak diren kontularitzako printzipioak egoki ezartzearekin lotutako hainbat alderdi.



### 2.3.1 UDALA

- Udalak BFAk Markesaren Jauregia sendotzeko emandako 256.000 euroko diru laguntza 2003ko ekitaldian kontuataratu zuen; horren exekuzioa SUSari agindu zitzaion. 2004ko abenduaren 31n Udalak gastu hori kontuataratu gabe duela azaleratu da. ]
- Berrizko Udalaren 2000ko urtarrilaren 13ko udalbatzak UE-7 lursaila SUSaren alde zuzenean besterentzea onetsi zuen, 145.000 euroko zenbatekoarekin. 2004ko abenduaren 31n SUSAk zor hau Udalaren alde aitortu du eta ez da ageri Udalaren finantza egoeretan, ekitaldi horretan aurrekontu sarrera ez baita aitortu.
- 2003ko ekitaldiko “Kapital Transferentziak” gastuen kapituluan 500.000 euroko zenbatekoa barne hartu da, SUSari (Markesa Jauregiaren jabea) Berriz, SA sozietatea erosteko aurrerakin kontzeptuan emana. Udalak ez du zor hau 2004ko abenduaren 31n bere finantza egoeretan barne hartu.
- Udalak Eusko Jaurlaritza-Izartu Programatik jasotako kapital diru laguntzak aurrekontukoak ez diren kontuetan erregistratzen ditu eta gerora, kopuru horiek SUSari eskualdatzen dizkio, diru laguntza hauen xede diren obrak exekutatzeko dituen sozietateari, alegia. Gogoan izanda Udala dela diru laguntza lerro honen onuraduna, kontularitzako kapital gastu eta sarreraren aurrekontuzko kapituluetan islatu behar zukeen.
- Hona hemen SUSAk exekutatu eta amaitutako lanen xehekapena, Udalari eskualdatu zaizkionak eta Egoeraren Balantzeko “Ibilgetua” idazpuruan alta eman ez zaienak:

	Mila euro
Udal zerbitzuetarako pabiloia.....	403
Olakueta Plazaren urbanizazioa .....	389
Urriaga Plazaren urbanizazioa .....	334
Errotatxo auzoaren urbanizazioa.....	570
Iturriza Kalearen urbanizazioa .....	248
Udal Pilotalekua Zaharberritzea.....	499
<b>GUZTIRA</b>	<b>2.443</b>

- Udalak ez du “Finantza Ibilgetua” multzoan jaso udalak SUSa sozietatean duen 60.000 euroko partaidetza; halaber, 2004ko abenduaren 31n islatu gabe dauka zorra ordaintzeko geratzen zaizkion 45.000 euroko zenbatekoarekin.
- “Aurrekontukoak ez diren beste hartzekodun batzuk” kontuaren 2004ko abenduaren 31ko saldoan 118.000 euroko zenbatekoa jaso dela ikusi dugu, EJren Izartu Programaren bitartez Udalak bere gain hartutako gastuaren % 50aren finantzaketari dagozkionak, 2002 eta 2003ko ekitaldietan Kultur-Etxea zabaltzeko etxebizitzaren erosketak kontzeptuan. Udalak ez du kopuru hau aurrekontuko sarrera modura erregistratu, aurrekontukoak ez diren kontuetan jasotakoak.



- Udalak ez du gaurkotutako ondasun eta eskubideen zerrendarik, egoeraren balantzean jasotako ibilgetuaren kopuruak 2004ko abenduaren 31ko ondasun eta eskubideen egiazko egoerarekin bat datozen ondorioztatzen utziko duena.
- Udalak 2003ko ekitaldian 400.000 euroko aurrekontu sarrera aitortu du, emandako mailegutik erabili gabeko saldoari dagokiona, 2004ko abenduaren 31n erabiltzeko zain dagoena.

### 2.3.2 BERRIZ HIRIGINTZA SOZIETATEA, SA

- Diru laguntza kontzeptuan kontuetaratutako sarreren berri ematen digun sozietatearen kontuen xehekapena eta horien aplikazioa emaitzetara Udalak agindutako inbertsioetarako, honako hau da:

	Mila euro			
EKITALDIA	2001	2002	2003	2004
Galdu-irabazietarako diru lag.....	505	1.688	631	266
Kapital diru laguntzak .....	-	-	266	220
Diru laguntzengatiko zordunak.....	-	575	500	497

SUSAk jasotzen duen kanpoko finantzaketa % 100ekoa dela gogoan hartuta, eta Kontabilitate Plan Orokorrari jarraiki, sozietateak kapitalezko diru laguntzak emaitzetara aplikatu behar ditu obrak Udalari eskualdatzen zaizkion unean eta “Kapitalezko diru laguntzak” zor-kontuan azken saldo modura abian dauden obrei dagokien zenbatekoa erakutsi behar du.

SUSAk 2004ko abenduaren 31n amaitu eta Udalari entregatutako lanen kontzeptuan kontuetaratutako gastua 2,4 milioi eurokoa da eta “Ekitaldiaren emaitzetara aplikatutako kapitalezko diru laguntzak” idazpuruaren saldoa, data horretan, 3,1 milioi eurokoa da. Honen ondorioz, sozietateak 647.000 euroko sarrerak sobera kontuetaratu ditu; horiek “Kapitalezko diru laguntzak” kontuan pasibo modura erregistratuak geratuko dira harik eta obrak udalari eskualdatzen zaizkion arte.

- “Izakinak” 3. multzoaren xehekapenak 2004ko abenduaren 31n abian dauden obra-egiaztagirien zenbatekoa islatzen du, Markesaren Jauregia sendotzeko obraren atala salbu, zeina 285.000 euroekin “Ibilgetu materiala” 1. multzoaren kontura eskualdatu baita, honako xehekapena duena:

	Mila euro
Kultur-Etxea zaharberritzea.....	422
Markesaren Jauregia sendotzea .....	212
<b>04.12.31n saldoa</b>	<b>634</b>



Egiten ari diren lanetatik -2004ko abenduaren 31n izakinetan ageri behar luketenak-SUSAk exekutatuak obra atala 1,2 milioi eurokoa da; hona hemen xehekapena:

	Mila euro
Kultur-Etxea zaharberritzea .....	483
Markesaren Jauregia sendotzea .....	547
Markesaren Jauregia zaharberritzea .....	154
<b>04.12.31n saldoa</b>	<b>1.184</b>

Honen ondorioz, SUSAk izakinak 265.000 euroan gutxituak ditu.

- SUSAk 2004ko abenduaren 31n abian dauden obretatik exekutatuak gastuak 1,2 milioi euro egiten ditu (ikus aurreko atala). Gogoan izanda “Kapitalezko Diru laguntzak” pasiboaren kontuaren saldoa data horretan 220.000 eurokoa dela, aurreko egokitzapenaren eraginaz gain, sozietateak kontu honetako saldo handi modura 317.000 euroko zenbatekoa erregistratu behar du eta kontrakontuan, aktiboan eskagarria den zorra.
- “Ibilgetuaren” idazpuruak 1,9 milioi euroko zenbatekoa barne hartzen du, Markesaren Jauregiari dagokiona. Sozietatearen jarduera aintzat hartuta, egoki litzateke “Izakinak” idazpuruan birsailkatzea. Sozietateak birsailkatze hau 2005eko ekitaldian gauzatu du.



### 3. BESTELAKO HUTSAK

#### 3.1 INBERTSIOEN KONTRATAZIOA

##### 3.1.1 UDALA

- Lau obra kontratueta (1, 2, 3, 4):
  - Ez dago jasota ez proiektua, ez espedientea kontratazio atalak onetsi dituenik, APKLTBren 122 eta 69 artikuluetan ezarritakoa urratuz.
  - Ez dago jasota proiektuaren alde aurreko birplanteaketa egin denik, APKLTBren 129 artikulua urratuz.
  - AKPPek lehiatzaileen esperientzia eta kaudimenean oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak, APKLTBren 17 eta 86.1 artikulua urratuz.
  - AKPPetan aurreikusitako eskaintza ekonomikoaren baloraketak zigortu egiten ditu eskaintzen batez bestekotik beherantz egiten duten haiek, ehunekoetan hiru puntu murriztuta; jokamolde honek eskaintza merkeenaren kontzeptua eskaintza ertainenekoarekin ordezkatzan du eta eskaintza merkeen gaineko balio-judizioa egiten du.
  - Kontratazioaren mahaia hirutik baino bokal gutxiagorekin osatzen da, APKLTBren Xedapen Gehigarri 9.a urratuz; honez gainera, mahaia ez du esleipen proposamena egiten APKLTBren 88.1 artikulua agindutako hitzetan.
  - Kontratazio atalak egindako esleipen ebazpena puntuen banaketa hutsala egitera mugatzen da, behar bezain arrazoitua ez dagoela. APKLTBren 88.2 artikuluari jarraiki, kontratazio atalak kasu guztietan arrazoitu egin behar du ebazpena, pleguan jasotako lehiaketaren esleipen irizpideei erreferentzia eginez.
  - Argitalpena ez da dagozkion aldizkari ofizialetan argitaratzen, APKLTBren 93. artikulua agintzen duen modura.
- 298.000 euroko zenbatekoarekin esleitutako bi obra kontratutan, ez dago jasoa dagozkion kontratua gauzatu denik, APKLTBren 54. artikulua urratuz (1,2 espedienteak).
- 264.000 euroko zenbatekoarekin esleitutako bi obra kontratutan, lehiaketa argitaratzen den unetik aurrera eskaintzak aurkezteko epea APKLTBren 78.2. artikulua agindutakoa baino laburragoa da (2,3 espedienteak).
- 94.000 euroan esleitutako obra kontratu batean, ez da zuinketa egiaztatzeko akta gauzatu, APKLTBren 142. artikulua agindutakoa urratuz (3. espedienteak).
- 806.000 euroan esleitutako hiru obra kontratutan, atzerapenak izan dira exekuzio epea betetzean, Udalak zigorrik batere ezarri ez duela, edo dagozkion luzapenak bideratu gabe (1, 2, 4 espedienteak).
- 94.000 mila euroan esleitutako obra kontratu batean ez dago erasota obren harrera akta gauzatu denik, APKLTBren 110.2 artikulua urratuz (3 espedienteak).



### 3.1.2 BERRIZ HIRIGINTZA SOZIETATEA, SA

- Bost obra kontratutan eta ondare kontratuan, hurrenez hurren 3,9 eta 3,2 milioi euroan esleitu direnetan, AKPPEk, besteak beste, lehiatzaileen esperientzian eta/edo kaudimenean oinarritutako irizpideak barne hartzen dituzte eta ez eskaintzaren ezaugarri teknikoetan oinarritutakoak (11,12,13,15,16 eta 19 espedienteak).
- 4,6 milioi euroan esleitutako zazpi kontratutan, AKPPetan aurreikusitako eskaintza ekonomikoaren baloraketak zigortu egiten ditu eskaintzen batez bestekotik beherantz egiten duten haiek, ehunekoetan hiru puntu murriztuta; jokamolde honek eskaintza merkeenaren kontzeptua eskaintza ertainenekoarekin ordezkatzeko du eta eskaintza merkeen gaineko balio-judizioa egiten du (10,11,12,13,14,15 eta 16 espedienteak).
- 5,4 milioi euroan esleitutako bederatzi obra kontratutan, kontratazio atalak egindako esleipen ebazpena puntuen banaketa hutsala egitera mugatzen da, behar bezain arrazoitua ez dagoela. Kontratazio atalak kasu guztietan arrazoitu egin behar du ebazpena, pleguan jasotako lehiaketaren esleipen irizpideei erreferentzia eginez (8,9,10,11,12,13,14,15 eta 16 espedienteak).
- 4,5 milioi euroko zenbatekoarekin esleitutako obren zazpi kontratutan atzerapenak izan dira AKPPetan finkatutako exekuzio epea betetzean atzerapenak izan dira (9,10,12,13,14,15 eta 16 espedienteak).

### 3.2 AUREKONTUA ETA KONTABILITATEA

- 2002 eta 2004ko ekitaldietarako hasierako aurrekontuak, hurrenez hurren, 2002ko urtarrilaren 24an eta 2004ko martxoaren 21ean onetsi dira; honekin urratu dira 500/1990 EDren 20.2 artikulua, Toki Ogasunak arautzen dituen 39/1988 Legea garatzen duena eta Bizkaiko Lurralde Historikoko Toki Erakundearen Aurrekontuei buruzko 10/2003 Foru Arauaren 15. artikulua; izan ere, hauek agintzen baitute udalbatzak Aurrekontu Orokorra behin-betiko onetsi behar duela ezargarria den ekitaldiaz aurreko urteko abenduaren 31 baino lehenago.
- 2004ko ekitaldiaren Kontu Orokorra ez du Udalbatzak onetsi, 10/2003 FAren 63 artikulua urratuz; honek agintzen du onesteko gehieneko epea dagokionaz hurrengo ekitaldiko uztailaren 31 dela.
- 2003ko ekitaldian Udalak Diruzaintza Gaindikinarekin finantzatutako milioi 1 euroko aurrekontu aldaketak egitea onetsi du; 2002ko ekitaldiaren Aurrekontu Likidazioan onetsitako Diruzaintza Gaindikin erabilgarria, ordea, 905.000 eurokoa da. Honenbestez, Udalak bere gastuetako egoeretan 99.000 euroko kredituak onetsi ditu, zeinentzat ez baitzegoen finantzaketarik.
- 2002ko ekitaldian Udalak 2001eko ekitaldiko kreditu txertaketari dagokion aurrekontu aldaketa onesten du, 34.000 euroko zenbatekoan behar hainbateko aurrekontu izendapenik ez dagoela.



- Udalak 2003ko ekitaldian onetsitako 46.000 euroko kreditu transferentzia bidez murriztutako “Inbertsio errealak” kapituluaren kontu-sailak, aurrez ekitaldi berean kreditu osagarri baten bidez gehitu ziren, Toki Ogasunak Arautzen dituen 39/1988 Legearen 161 artikulua urratuz.
- 2004ko ekitaldian Udalak ez du herri bideetako lanak finantzatzeko -166.000 euroko zenbatekoarekin- kreditu osagarriari eman beharreko publizitate-izapidea bete eta honek 10/2003 FAREN 34. artikulua urratzen du.

### **3.3 BESTELAKO ALDERDIAK**

- Udalak ez du SUSARI emanako kapital transferentzien jarraipen eta kontrol egokirik egiten, ez eta honek egiten duen inbertsioen exekuzioaren egiaztaketarena ere.





## 4. AZALPEN ATALAK

### 4.1 UDALAREN ERAGIKETA KAPITAL ETA FINANTZAZKOEN AURREKONTU LIKIDAZIOA

2002-KO EKITALDIA							Mila euro	
DIRU-SARRERA	AURREKONTUA			ESKUB. OBLIG.	KOB.R./ ORDAINK.	EGITEKE	% EXEK.	
	HASIERAKOA	ALDAT.	B.-BET.					
6.- Inbertsioen besterentzea.....	100	-	100	-	-	-	-	
7.- Kapital dirulag. eta transf. ....	706	-	706	20	-	20	3	
8.- Finantza aktiboan aldak.....	-	1.642	1.642	-	-	-	-	
9.- Finantza pasiboan aldak. ....	2.098	(1.297)	801	801	801	-	100	
<b>GASTUAK</b>								
3.- finantza gastuak.....	12	(3)	9	7	7	-	78	
6.- Inbertsio errealak.....	2.851	(358)	2.493	1.372	1.303	69	55	
7.- Kapitalezko transferentziak.....	561	606	1.167	1.111	1.111	-	95	
9.- Finantza pasiboan aldak. ....	50	82	132	108	108	-	82	

2003-KO EKITALDIA							Mila euro	
DIRU-SARRERAK	AURREKONTUA			ESKUB. OBLIG.	KOB.R./ ORDAINK.	EGITEKE	% EXEK.	
	HASIERAKOA	ALDAT.	B.-BET.					
6.- Inbertsioen besterentzea.....	99	-	99	15	15	-	15	
7.- Kapital diru lag. eta transf. ....	1.487	256	1.743	296	29	267	17	
8.- Finantza aktiboan aldak.....	11	1.004	1.015	-	-	-	-	
9.- Finantza pasiboan aldak. ....	1.512	-	1.512	1.512	1.112	400	100	
<b>GASTUAK</b>								
3. finantza gastuak .....	34	-	34	29	29	-	85	
6.- Inbertsio errealak.....	2.903	468	3.371	1.267	1.130	137	38	
7.- Kapitalezko transferentziak.....	500	726	1.226	1.061	1.061	-	86	
8.- Finantza aktiboan aldak.....	11	-	11	-	-	-	-	
9.- Finantza pasiboan aldak. ....	44	-	44	44	44	-	100	

2004-KO EKITALDIA							Mila euro	
DIRU-SARRERAK	AURREKONTUA			ESKUB. OBLIG.	KOB.R./ ORDAINK.	EGITEKE	% EXEK.	
	HASIERAKOA	ALDAT.	B.-BET.					
6.- Inbertsioen besterentzea.....	186	-	186	182	182	-	98	
7.- Kapital dirulag. eta transf. ....	44	5	49	31	5	26	63	
8.- Finantza aktiboan aldak.....	14	930	944	4	4	-	(*) 29	
<b>GASTUAK</b>								
3. finantza gastuak .....	35	-	35	33	33	-	94	
6.- Inbertsio errealak.....	199	836	1.035	747	693	54	72	
7.- Kapitalezko transferentziak.....	240	-	240	30	30	-	12	
8.- Finantza aktiboan aldak.....	-	14	14	12	12	-	86	
9.- Finantza pasiboan aldak. ....	46	-	46	42	42	-	91	



## 4.2 BERRIZ HIRIGINTZA SOZIETATEA, SA-REN FINANTZA EGOERAK

EGOERAREN BALANTZEA				Mila euro			
AKTIBOA	04 URTEA	03 URTEA	02 URTEA	PASIBOA	04 URTEA	03 URTEA	02 URTEA
<b>AKZ.EZ ESKAG. DESENB.</b>	<b>45</b>	<b>45</b>	<b>45</b>	<b>BEREZKO FONDOAK</b>	<b>3.238</b>	<b>117</b>	<b>79</b>
				Kapital harpidetua	60	60	60
<b>IBILGETUA</b>	<b>1.938</b>	<b>1.665</b>	-	- Erreserbak.....	57	19	-
Ibilgetu materiala.....	1.938	-	-	- Galerak eta Irabaziak.....	3.121	38	19
Ibilgetu finantzarioa.....	-	1.665	-	<b>KAPITALEZKO DIRU LAG.</b>	<b>220</b>	<b>266</b>	<b>-</b>
				<b>EPE LUZEKO HARTZEK.</b>	<b>1.075</b>	<b>1.075</b>	<b>-</b>
<b>AKTIBO ERABILKORRA</b>	<b>3.615</b>	<b>1.759</b>	<b>1.101</b>	<b>HARTZEKOD. E/L</b>	<b>1.065</b>	<b>2.010</b>	<b>1.067</b>
Merkataritzako izakinak.....	-	180	-	- Kreditu etxeekiko zorrak.....	-	361	181
Iandarreko gaiak.....	634	-	-	- Hartzekodun komertzialak.....	536	1.150	886
Bezeroak.....	489	-	40	Bestel. zor ez merkataritzakoak	529	500	-
Entitate publikoak.....	159	471	286				
Askotariko zordunak.....	497	500	575				
Diruzaintza.....	1.836	607	201				
<b>GUZTIRA AKTIBOA</b>	<b>5.598</b>	<b>3.469</b>	<b>1.146</b>	<b>PASIBOA GUZTIRA</b>	<b>5.598</b>	<b>3.469</b>	<b>1.146</b>

GALDU-IRABAZIEN KONTUA (*)				Mila euro			
GASTUAK	04 URTEA	03 URTEA	02 URTEA	DIRU-SARRERAK	04 URTEA	03 URTEA	02 URTEA
Hornidurak.....	588	573	1.387	Negozio zifra.....	3.189	-	-
Izakinen murrizketa.....	180	-	-	Iandar.gaien igoera.....	634	180	(264)
Ibilkorra horn. aldaketa.....	22	-	-	- Transf. eta diru lag.....	266	631	1.688
Zerb. Prof. askeak.....	485	149	-	- Bestelako sarrerak.....	391	2	4
Bestelako ustiaketa gastuak.	50	41	14				
<b>USTIAKETA MOZKINA</b>	<b>3.156</b>	<b>51</b>	<b>25</b>	<b>EMAITZA FINANTZARIOAK</b>	<b>24</b>	<b>13</b>	<b>-</b>
Finantza gtuak.....	25	13	-				
<b>EMAITZA ARRUNTA</b>	<b>3.131</b>	<b>38</b>	<b>25</b>				
<b>ZERGA AURRETIKO MOZK.</b>	<b>3.131</b>	<b>38</b>	<b>25</b>				
<b>EKITALDIAREN EMAITZA</b>	<b>3.121</b>	<b>38</b>	<b>25</b>				
<b>GASTUAK GUZTIRA</b>	<b>4.481</b>	<b>813</b>	<b>1.428</b>	<b>DIRU-SARRERAK GUZTIRA</b>	<b>4.481</b>	<b>813</b>	<b>1.428</b>

(\*) HKEEK fiskalizatu gabeko datuak.



### 4.3 AURREKONTUAREN ALDAKETAK

Hona hemen udalak 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietan zehar egindako aurrekontuko aldaketan xehekapena, zeinek Kapital eragiketengatiko gastu kapituluak eragiten dituzten:

GASTUAK AURREKONTUKO KAPITULUEN ARABERAKO AURREKONTU ALDAKETAK						Mila euro
KAPITULUAK	HASIERAKO KREDITUAK	KREDITU TRANSF.	KREDITU TXERTAK.	KREDITU OSAGARRIA	KREDITU GAIKUNTZ.	B.-BETIKO KREDITUAK
6. Inbertsio errealak .....	2.851	(649)	279	12	-	2.493
7. Transf. eta kapital dirulag.....	561	570	-	36	-	1.167
<b>2002-KO EKITALDIA GUZTIRA</b>	<b>3.412</b>	<b>(79)</b>	<b>279</b>	<b>48</b>	<b>-</b>	<b>3.660</b>
6. Inbertsio errealak .....	2.903	(45)	100	413	-	3.371
7. Transf. eta kapital dirulag.....	500	-	26	444	256	1.226
<b>2003-KO EKITALDIA GUZTIRA</b>	<b>3.403</b>	<b>(45)</b>	<b>126</b>	<b>857</b>	<b>256</b>	<b>4.597</b>
6. Inbertsio errealak .....	199	232	98	506	-	1.035
7. Transf. eta kapital dirulag.....	240	-	-	-	-	240
<b>2004-KO EKITALDIA GUZTIRA</b>	<b>439</b>	<b>232</b>	<b>98</b>	<b>506</b>	<b>-</b>	<b>1.275</b>

Gastuen bi kapitulu hauetan, hasierako aurrekontuen gainean 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietako aurrekontu aldaketek eragin duten igoera, hurrenez hurren, % 7, % 35 eta % 190ekoa izan da.

Aldaketa hauetatik azpimarratzekoak dira:

- 2002ko ekitaldiko “Inbertsio errealak” 6. kapitulutik “Kapitalezko transferentzia eta diru laguntzak” 7. kapitulura egindako 547.000 euroko kreditu transferentzia, udal pilotalekua zaharberritzeko lanei dagokiena, hasiera batean Udal Aurrekontuan jaso zena eta gerora, SUSArri agindu zitzaiona.
- 2003ko ekitaldiko kredituaren gaitzea “Jasotako Kapital Transferentzia eta Diru laguntzak” 7. kapituluko sarrerekin finantzatu da, Markesaren jauregia sendotzeko obrari aurre egiteko BFAtik eratorritakoak, horren exekuzioa Udalbatzak SUSArri agindu ziola eta 2002ko ekitaldiko Diruzaintzaren Eskudiruzko Gaindikinak finantzatutako kreditu osagarriak, inbertsio proiektu nagusi honako hauek dituela:

Mila euro	
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Ondarea erostea .....	157
Heziketa Sistema Orokorra.....	98
SUSArri transf.-Markesaren Jauregia (sendotzea).....	264
SUSArri transf.- bestelako inbertsioak .....	150
<b>GUZTIRA</b>	<b>669</b>



- 2003ko ekitaldiko Diruzaintzaren Eskudiruzko Gaindikinak finantzatutako 2004ko ekitaldiko kreditu osagarriak, inbertsio proiektu nagusien honako hauek dituztenak:

	Mila euro
PROIEKTUA	ZENBATEKOA
Herri-bideak.....	166
Futbol zelaiko aldagelak .....	113
Olakueta-Matza lotunea .....	63
<b>GUZTIRA</b>	<b>342</b>

#### 4.4 AURREKONTUZ KANPOKO ERAGIKETAK

Hona hemen “Aurrekontuz kanpoko beste hartzekodun batzuk” aurrekontuz kanpoko kontuaren 2002, 2003 eta 2004ko ekitaldietan izan duen bilakaera:

	Mila euro			
	SALDOA		SALDOA	
	HASIERAKOA	KOBR. ORDAINK.	AZKENA	
IZARTU programa .....	-	38	(38)	-
Bestelako sarrerak.....	-	2	(2)	-
<b>2002-KO URTEALDIA GUZTIRA</b>	<b>-</b>	<b>40</b>	<b>(40)</b>	<b>-</b>
IZARTU programa .....	-	575	(365)	210
BFA-Urdaiaga mendi. diru lag. ....	-	80	(80)	-
Bestelako sarrerak.....	-	4	(4)	-
<b>2003-KO URTEALDIA GUZTIRA</b>	<b>-</b>	<b>659</b>	<b>(449)</b>	<b>210</b>
IZARTU programa .....	210	233	-	443
Bestelako sarrerak.....	-	93	(89)	4
<b>2004-KO URTEALDIA GUZTIRA</b>	<b>210</b>	<b>326</b>	<b>(89)</b>	<b>447</b>

Udalak Eusko Jaurlaritza-Izartu Programatik jasotako kapital diru laguntzak aurrekontukoak ez diren kontuetan erregistratzen ditu eta gerora, kopuru horiek SUSari eskualdatzen dizkio, diru laguntza hauen xede diren obrak exekutatzeko dituen sozietateari, alegia. 2004ko abenduaren 31n Sozietateari eskualdatzeko dagoen saldoa, 443.000 euroko zenbatekoa egiten duena, 2005eko ekitaldian eskualdatu da.



## 4.5 KONTRATAZIOA

19 espedienteko lagin baten bitartez kontratu mota bakoitzari ezargarriak zaizkion legezko prozedurak aztertu ditugu; horietatik 7, udalari dagozkio 1,9 milioi eurokoak eta 12, SUSAr 9,9 milioi eurokoak.

Espedienteak berrikustean azaleratu diren ez betetze garrantzizkoak edo izaera orokorrekoak honako hauek dira:

UDALA	Mila euro							
	ZENBATEKOA			ESLEIPENA		AKATSAK		
XEDEA	AURREK.	ESLEIP.	EXEK.(*)	EKIT.	MODUA	A	B	C)
<b>OBRA KONTRATUAK</b>								
1. Herri-bideak 2002 .....	140	128	152	2002	Lehiaketa	A1,2,3,4,5	B1,2,3,4,5	C2,3
2. Mazagako hegala berreskuratzea-1. Fasea .....	192	170	164	2004	Lehiaketa	A1,2,3,4,5	B1,2,3,4,5,6	C2
3. Olabe Auzoko bidea berrasfaltatzea .....	106	94	84	2003	Lehiaketa	A1,2,3,4,5	B1,2,3,4,6	C1,4
4. Futbol zelaiko aldagelak handiagotzea .....	513	508	543	2003	Lehiaketa	A1,2,3,4,5	B1,2,3,4	C2
Osagarria: Futbol zelaia urbanizatzea .....	29	29	29	2004				
Osagarria: Futbol zelaiko gas-sarea .....	30	30	30	2004				
<b>ONDARE KONTRATUAK</b>								
5. Lonja erostea eta Eljri lagatzea .....	713	713	713	2001	Zuzena			
6. SUSAr lursaila saltzea .....	180	180	180	2002	Zuzena			
<b>LAGUNTZA TEKNIKOAK</b>								
7. Arkitekto aholkulariaren kontratua .....	36	36	36	1988	Negoziatua			C5
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.939</b>	<b>1.888</b>	<b>1.931</b>					

(\*) 2004ko abenduaren 31n exekuzioa.



BERRIZ SUSA

Mila euro

XEDEA	ZENBATEKOA			ESLEIPENA		AKATSAK		
	AURREK.	ESLEIP.	EXEK.(*)	URTEALDIA	MODUA	A	B	C)
<b>OBRA KONTRATUAK ETA ZERBITZUAK</b>								
8. Udal zerbitzuetarako pabiloia eraikitzea.....	358	356	351	2001	Lehiaketa			B3
Osagarria-instalazio elektrikoa .....	13	13	13	2002				
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	32	32	32	2001	Zuzena			B7
Exek.mater.zuzend. eta segur. eta osasun. koord. ....	9	9	9	2001	Zuzena			
9. Olakueta Plazaren urbanizazioa .....	357	355	356	2001	Lehiaketa		B3	C2
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	22	22	22	2001	Zuzena		B7	
Exek.mater.zuzend. eta segur. & osasun. koord. ....	7	7	7	2001	Zuzena			
10. Urtiaga plaza urbanizatz. lanak.....	269	259	273	2002	Lehiaketa	A5	B3	C2
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	16	16	16	2001	Zuzena		B7	
Exek.mater.zuzend. eta segur. & osasun. koord. ....	6	6	6	2002	Zuzena			
11. Errotatxo auzoa urbanizatzea .....	576	529	529	2002	Lehiaketa	A3,5	B3	
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	34	34	34	2002	Zuzena		B7	
Exek.mater.zuzend. eta segur. & osasun. koord. ....	11	11	11	2002	Zuzena			
12. Iturriza Kalearen urbanizazioa.....	249	231	226	2003	Lehiaketa	A3,5	B3	C2
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	17	17	17	2003	Zuzena		B7	
Exek.mater.zuzend. eta segur. & osasun. koord. ....	6	6	6	2003	Zuzena			
13. Kultur Etxea zaharberritzea.....	1.554	1.430	416	2004	Zuzena	A3,5	B3	C2
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	100	100	71	2003	Zuzena		B7	
Exek.mater.zuzend. eta segur. eta osasun. koord. ....	30	30	6	2004	Zuzena		B7	
14. Pilotalekua zaharberritzea.....	472	460	487	2002	Lehiaketa	A5	B3	C2
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	14	14	14	2002	Zuzena		B7	
Exek.mater.zuzend. eta segur. eta osasun. koord. ....	16	16	16	2002	Zuzena		B7	
15. Markesaren Jauregia sendotzea .....	412	388	424	2003	Lehiaketa	A3,5	B3	C2
Osagarria-igogailua jartzea .....	48	48	41	2004				
Alboko terraza zabaltzeko aldaketa .....	70	70	52	2004				
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	42	42	42	2003	Zuzena		B7	
Exek.mater.zuzend. eta segur. eta osasun. koord. ....	15	15	15	2003	Zuzena		B7	
16. Markesaren Jauregia zaharberritzea.....	1.470	1.309	57	2004	Lehiaketa	A3,5	B3	C2
Oinar. azterketa, proiektua eta obra zuzend. ....	116	116	82	2004	Zuzena		B7	
ZuzenaExek.mater.zuzend. eta segur. eta osasun. koord. ....	36	36	8	2004	Zuzena	B7		
17. SAPUR-4 proiektua eta obra zuzend. ....	591	591	420	2003	Zuzena		B7	
18. SAPUR-4 exek. Mater. Zuzend. ....	177	177	37	2004	Zuzena		B7	
<b>ONDARE KONTRATUAK</b>								
19. SAPUR-4 lursaila besterentzea .....	2.657	3.189	3.189	2003	Lehiaketa	A3		
<b>GUZTIRA</b>	<b>9.802</b>	<b>9.934</b>	<b>7.285</b>					

(\*) 2004ko abenduaren 31n exekuzioa.



	Mila euro	
	____ESLEIPENA____	
AKATSAK	UDALA	SUSA
<b>ESPEDIENTEA</b>		
A1 Ez dago erasota kontratazio atalak proiektua onetsi duenik (APKLTBren 122 art.) .....	900	
A2 Ez dago proiektuaren alde zurreko zuinketarik (APKLTBren 129 art.).....	900	
A3 Lehiatzaileak onartzeko irizpideak esleipen irizpide modura erabiltzen dira (APKLTBren 1 eta 86.1 art).	900	7.076
A4 Ez dago erasota kontratazio atalak espedientea onetsi duenik (APKLTBren 69 art.) .....	900	
A5 APKKk zigortu egiten ditu beheranzko batz bestekotik urruntzen diren eskaintza ekonomikoak .....	900	4.606
<b>ESLEIPENA</b>		
B1 Kontratazio mahaia oker eratzea (APKLTBren XG 9.3) .....	900	
B2 Kontratazio Mahaia ez du esleipen proposamena egin (APKLTBren 88.1 art.) .....	900	
B3 Behar hainbat arrazoitu gabeko esleipen ebazpena (APKLTBren 88.2).....	900	5.431
B4 Ez dago erasota esleipena argitaratu denik (APKLTBren 93 art.) .....	900	
B5 Ez dago erasota kontratua gauzatu denik (APKLTBren 54 art.) .....	298	
B6 Eskaintzak jasotzeko epea legeak agintzen duena baino laburragoa (APKLTBren 78.2 art.) .....	264	
B7 Zuzeneko esleipena, publizitate eta lehiarik gabe.....	1.258	
<b>EXEKUZIOA</b>		
C1 Ez dago zuinketaren egiaztaketa aktarik (APKLTBren 142 art.).....	94	
C2 Exekuzioan atzeraldiak .....	806	4.533
C3 Azken kitapena % 10etik gorakoa, aldaketa izapidetu gabe (APKLTBren 146 art.) .....	128	
C4 Obrak hartu izanaren aktarik ez dago (APKLTBren 110.2 art.) .....	94	
C5 Isilpeko luzapenak (APKLTBren 198.1 art.) .....	36	







## 1. INTRODUCCIÓN

El Tribunal Vasco de Cuentas Públicas (TVCP), de acuerdo con lo establecido en la Ley 1/1988, de 5 de febrero y en el Programa de Trabajo aprobado por el Pleno del Tribunal, ha realizado la revisión limitada en las áreas de inversiones reales, financiación de las mismas y legalidad presupuestaria del Ayuntamiento de Berriz y de la Sociedad Pública “Berriz Sociedad Urbanística, S.A.” (en adelante SUSA), referida a los ejercicios 2002, 2003 y 2004.

SUSA se creó en 1998 con el 100% de capital municipal y su objeto social abarca tanto la gestión urbanística, en régimen de libre concurrencia, de las Normas Subsidiarias Municipales de Berriz, como la realización de obras constructivas, urbanísticas y de infraestructuras, de actuaciones de rehabilitación así como la promoción del suelo, entre otras. Durante el periodo analizado todas las obras realizadas por la Sociedad han sido encomendadas por el Ayuntamiento.

El objetivo del trabajo será concluir sobre el cumplimiento de la normativa aplicable en la elaboración, modificación y ejecución del Presupuesto, en las áreas de inversiones reales, endeudamiento y operaciones financieras, así como en la concesión y obtención de subvenciones de capital. Analizaremos también la conformidad de estos gastos e ingresos de capital con los principios contables que resultan de aplicación.



## 2. CONCLUSIONES

De la revisión de la contratación y enajenación de las inversiones realizadas por el Ayuntamiento y SUSA en el periodo 2002-2004, destacamos los siguientes aspectos.

1. SUSA ha adjudicado de forma directa todas las asistencias técnicas sujetas a los principios generales de la contratación administrativa para la elaboración de estudios básicos, proyectos de ejecución, direcciones de obra y estudios básicos de seguridad y salud, de inversiones ejecutadas durante el periodo analizado, por importe de 1,3 millones de euros, incumpliendo los principios de publicidad y concurrencia. (Expedientes 8,9,10,11,12,13,14,15,16,17 y 18).

En estas actuaciones es de destacar:

- Los estudios básicos y proyectos de ejecución y dirección de obra se han contratado, por un importe total de 984.000 euros, con una sociedad en la que uno de los administradores mantiene una relación de servicios con el propio Ayuntamiento, en virtud del cual, ejerce sus funciones asesorando tanto al Ayuntamiento como a la propia sociedad, en cuestiones urbanísticas y en las licitaciones de los diferentes contratos relacionados con las inversiones y actuaciones urbanísticas del Ayuntamiento y la sociedad, formando además parte de la mesa de contratación. Aunque el contrato prevé retribuciones adicionales a la labor de asesoramiento, existe una incompatibilidad funcional entre las labores de asesoramiento realizadas en la adjudicación de los contratos relacionados con las inversiones e intervenciones urbanísticas del ayuntamiento y la sociedad, y la adjudicación de todas las asistencias técnicas relacionadas con los proyectos y direcciones de obra de ambas entidades.

Por otra parte, la contratación del asesoramiento urbanístico por el Ayuntamiento fue aprobada por el Pleno de 25 de febrero de 1988, prorrogándose anualmente hasta el momento de emisión de este informe. Durante 2004, las obligaciones registradas por este concepto han ascendido a 36.000 euros. La duración acumulada del contrato no tiene encaje en ninguno de los plazos de ejecución que para este tipo de contrato se establece en el TRLCAP (artículo 198.1), por lo que su contratación en el periodo analizado se ha realizado incumpliendo los principios de publicidad y concurrencia (expediente 7).

A la fecha de este informe, el contrato de servicios de asesoramiento urbanístico, ha sido resuelto mediante decreto de alcaldía, y notificado al interesado con fecha 9 de diciembre de 2006 (ver Alegaciones).

- Respecto a las direcciones de la ejecución material y estudios básicos de seguridad y salud se ha verificado que uno de los que ha resultado adjudicatario por un importe de 156.000 euros es funcionario municipal, incurriendo en incompatibilidades según lo establecido en el artículo 11.1 de la Ley 53/84 de Incompatibilidades del personal al servicio de las Administraciones Públicas.



2. En un contrato de obra adjudicado por el Ayuntamiento por importe de 128.000 euros, la liquidación final resulta superior en un 18,75% al importe de adjudicación sin que conste la aprobación del correspondiente modificado por el órgano de contratación contraviniendo el artículo 146 del TRLCAP (expediente 1).
3. El Consejo de Administración de SUS A de fecha 3 de octubre de 2002 aprueba la compra de las acciones de la sociedad Berriz, S.A. por importe de 1,7 millones de euros. No consta en el expediente tasación alguna que soporte la razonabilidad del importe abonado.
